



OIOLARI BURUZKO IKUSENTZUNEZKOA EUROPAKO PARLAMENTUAN

Hedabideak herri mugimenduen borroka bere egiten duenean



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Europar izan da ARGIA. Bruselan. Tira, izan izan ez, Oiolarako urtegiaren deskonexioaren aldeko plataformako kideek, gaiaz ARGIAk egindako bideo bat eraman dute Europako Parlamentura martxoaren 14 eta 15ean. Urtegia lindanoz kutsatuta dagoela salatu eta arazoari konponbidea emateko aldarrikatzera joan dira.

Europako Eskaren Batzordean eman zuten hainbat europarlamentariren aurrean *Lindane: water pollution in the Basque Country*, euskaraz egin eta ingelesezko azpitituluak dituen ikus-entzunezkoa; azaltzen duena Barakaldo eta Sestao inguruetan Oiolarako urtegiarekin duten problema. Eta inguruko bi zabortegi itxita konponduta dagoela dioen txosten batean oinarrituz zenbait erakundek Oiolarako gaia bukatutzat eman nahi bazuten ere, urtegiaren deskonexioaren aldeko plataformak lortu du Bruselan kasua aztertzen jarraitzea.

Ekozinemaldian ere eskaini da ARGIAko ikus-entzunezkoa, Barakaldon,

Ataunen, Seguran, Leioan eta Artean. Ekologistak Martxan taldeak antolatutako ekozinemaldiaren hamargarren edizioaren egitarauan sartu dute eta zenbait emanalditan izan da Unai Brea ARGIAko kidea ere.

Komunikabideak sortutako produktua erabilgarri egin zaio herri mugimenduari. Bustitzen den seinale. "Herri mugimenduen kexa hau du eta beste aldeak hau dio" formatu ohikoa alde batera utzi eta azalpenetan bere egiten du problema, denona baita. Eta agian hitz egin beharko dugu herri mugimenduekin eta galde-tu zertan lagun dezakegun hedabideok; igual gure lanak albistea egin eta gaia mahai gainean jartzeaz gain izan beharko du eragile sozialen eskura jartzea euren borroketan baliagarri zaien materiala (gaiaren azalpen edo laburpen bideoa, argazki-bildumak...). Agian gakoa borroka horiek nork bere esparrura ekartzea da, gure sentitzen ditugun momentutik hedabidean atal horri emango zaion trataera ezberdina izango baita, gertuagokoa. ■

"Denbora neraman berriz ere harpide noiz egingo, eta, gaurko berria irakurrita, momentua iritsi dela erabaki dut"

Jabier Muguruza,
ARGIAkoa

"Kooperazioaren artez" bloga hasi du Lankik ARGIAko

ARGIAren blog komunitatea zabalduz doa. Lanki ikertegiak kudeaturik, beste ekonomia eta bizitza eredu batzuk landuko dituen *Kooperarock* bloga egongo da irakurgai hemendik aurrera gure webgunean.

Donostia 2016ren baitan abian jarritako *Kooperarock* proiektuarekin eta Arro-sa Irrati Sarearekin elkarlanean, astero ekonomia sozialaren inguruko gai bat jorratuko du blogak, Maider Iriartek *Zerbrabidea* irratiairako tartean esandakoak aletuz.

Ekonomia feministaz, kooperatibagintza hastapenez edota bestelako kontzeptu subertsibo iraultzaileez hainbat hausnarketa plazaratuko dituzte bertan.

Kooperarock proiektua kooperatibagintza ikuspegi soziala eta oinarriak artearen bidez azaltzeko saiakera da. Horretarako, urte osoko egitarau zabala antolatu dute: ekonomia sozial eta eraldatzailerako eragileekin mahai-inguruak, unibertsitateko ikertegien topaketak eta transmisioa lantzeko hizketaldiak, besteak beste.

ARGIA IRRATIETAN

- **Euskal Irratiak:**
Astelehenetan, 8:00ean.
- **Info7 Irratia:**
Asteazkenetan, 16:15ean.
- **Euskalerrria Irratia:**
Asteartetan, 14:15ean.
- **Bilbo Hiria Irratia:**
Ostiralean, 10:30ean.
- **Xorroxin Irratia:**
Asteartetan, 18:00ean.